



GURASO BILERA

BATXILERGOA 2

2025/2026 ikasturtea

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA
2. FAMILIEKIN HARREMANA
3. IRAKASLEAK, TALDEKATZEAK ETA ORDUTEGIA
4. EGUTEGIA
5. EBALUAZIOA
6. ORIENTAZIO AKADEMIKOA
7. EGUNEROKO ARAUAK
8. BIGARREN HEZKUNTZAKO BATZORDEA
9. IRTEERAK, JARDUERA OSAGARRIAK ETA OSPAKIZUNAK
10. OSASUN ARRETA

1. AURKEZPENA

Aurten, zuen seme-alabek Batxilergoko azken urteari eman diote hasiera. Ikasleak ondorengo ikasketak egiteko beharko duten maila lortzea izango du xede ikasturte honek.

Aurreko ikasturtean bezala, erritmo eta exigentzia mailak altuak izango direla ukaezina da, eta prozesu horretan tutore eta irakasleak izango dituzte bidelagun.

Aurten ere Batxilergoko ikasleek astean tutoretza ordu bat izango dute esleituta, tutorearekin erlazioa indartu eta informazio-beharrak (edo bestelakoak) haiekin partekatzeko.

2. FAMILIEKIN HARREMANA

Ikasturtean zehar guraso bilera orokor bat egingo dugu. Horretan ikasturteko helburuak, metodologia eta eguneroko dinamikaz arituko gara.

Bakarkako 2 elkarrizketa egingo ditugu gurasoekin ebaluazio-txostenen gaineko azalpenak emateko eta ikaslearen garapenari buruzko informazioa trukatzeko. Biler horietaz gain, behar adina aldiz elkartuko gara, zuekin egoerak hala eskatuz gero.

Tutorearekin harremanetan jarri edo mezu bat helarazi nahi izanez gero, bere e-postara mezu bat bidali eta ahalik eta azkarren emango zaio erantzuna. Momentuan jaso beharreko mezua balitz, Ikastolako idazkaritzara deitu.

Horrez gain, gogorarazten dizuegu urtean zehar Ikastolak gurasoekin izango duen komunikazio bide nagusia ostiraletan bidaltzen den ATARIA astekari digitala dela. Bertan,

aurreko astean izandako ekintza nagusien berri emateaz gain, hurrengo egunetan izango diren gertakariak eta bestelako ohar garrantzitsuak agertzen dira. Hori dela eta, oso garrantzitsua da behar besteko arreta ematea asteroko komunikabide honi. Informazio hori guztiari webgunea gaineratu behar zaio, etengabeko kontsultagai gisa.

Atariarekin inolako arazorik izanez gero, idatzi alexiazalantzak@zurriolaikastola.eus helbidera. **Zuen datu pertsonaletan aldaketarik izanez gero**, idatzi ezazue idazkaritzara: idazkaritza@zurriolaikastola.eus.

BATXILERGOAREN CURRICULUMAREN ARLOAK ETA IRAKASLEAK

Batx 2 2025-26	2A (30) KOLDO 305	2B (30) ANA I. 307	2C (30) JON 308	ORD
AD.GRAFIKOAK	MARIANA - 211			4
ARTEAREN HISTORIA	PIRU - 210			4
BIOLOGIA II	AMAIA I. - 307			4
DISEINUA	MARIANA - 210			4
ENPRESA EK.	ITZIAR - 305			4
EUSKARA II	AITOR - 305	AITOR - 307	AITOR - 308	3
FILOSOFIA	ANA I. - 305	ANA I. - 307	ANA I. - 308	4
FISIKA	KOLDO - 305			4
GAZTELANIA II	AMAIA D. - 305	AMAIA D. - 307	AMAIA D. - 308	3
GEOGRAFIA	JOXAN - 305			4
HISTORIA	AITZOL - 305	AITZOL - 307	AITZOL - 308	4
INGELES II	IÑAKI - 307 INGELES 2-1	LIERNI - 308 INGELES 2-2	JON - 305 INGELES ELE	3
JARDUERA FISIKOAK, AISIA ETA OSASUNA	ITSASO - 308			4
KIMIKA	AMAIA I. - 307			4
PSIKOLOGIA	AMETS - 307			4
MARR. ART II	ESTI - 210			4
MARR. TEK II	PIRU - 307			4
MATEMATIKA II	NEREA - 308 MATE Z 2-1	NEREA - 308 MATE Z 2-2	KOLDO - 305 MATE GZ	4

BATXI 2Ako tutorea: Koldo Mendiola: kmendiola@zurriolaikastola.eus

BATXI 2Bko tutorea: Ana Iturregi: aiturregi@zurriolaikastola.eus

BATXI 2Cko tutorea: Jon Lopez: jlopez@zurriolaikastola.eus

Kotutorea: Amaia Donés: adones@zurriolaikastola.eus

Gainerako irakasleen helbideak Ikastolaren webgunean dituzue ikusgai.

3. IRAKASLEAK, TALDEKATZEAK ETA ORDUTEGIA

Aurreko ikasturteko taldekatzeak desegin, eta berriak sortu ditugu hainbat irizpideri jarraituz (besteak beste, aukeragaien eta modalitateen arteko oreka).

Hauek izango dira Batxi 2n aurten ditugun hiru taldeen ordutegiak:

BATX 2A (305) 2025-2026

	Astelehena			Asteartea			Asteazkena			Osteguna			Ostirala		
8:00 8:55	308 307 ARTE 2 305	AISIA PSIKOLOGIA AD.GRAF FISIKA	Itsaso Amets Mariana Koldo	307 308 305 ARTE 2	BIOLOGIA MATE Z 2-2 ENPRESA ART HIS	Amaia I Nerea Itziar Piru	305	HISTORIA	Aitzol	308 307 ARTE 2 305	AISIA PSIKOLOGIA AD.GRAF FISIKA	Itsaso Amets Mariana Koldo	305	EUSKARA	Aitor
8:55 9:50	307 308 305 ARTE 2	BIOLOGIA MATE Z 2-2 ENPRESA ART HIS	Amaia I Nerea Itziar Piru	307 305 ARTE 2	KIMIKA GEOGRAFIA DISEINUA	Amaia I Joxan Mariana	305	GAZTELANIA	Amaia D	305	GAZTELANIA	Amaia D	305	FILOSOFIA	Ana
9:50 10:10															
10:10 11:00	307 305 ARTE 2	KIMIKA GEOGRAFIA DISEINUA	Amaia I Joxan Mariana	308 307 ARTE 2 305	AISIA PSIKOLOGIA AD.GRAF FISIKA	Itsaso Amets Mariana Koldo	305	FILOSOFIA	Ana	305	EUSKARA	Aitor	307 305 ARTE 2	KIMIKA GEOGRAFIA DISEINUA	Amaia I Joxan Mariana
11:00 11:50	305	GAZTELANIA	Amaia D	305	EUSKARA	Aitor	307 308 305 ARTE 2	BIOLOGIA MATE Z 2-2 ENPRESA ART HIS	Amaia I Nerea Itziar Piru	305	TUTORETZA	Koldo	308 307 ARTE 2 305	AISIA PSIKOLOGIA AD.GRAF FISIKA	Itsaso Amets Mariana Koldo
11:50 12:40	305	HISTORIA	Aitzol	308 ARTE 2 307 305	MATE Z 2-1 MARRAZ ART MARRAZ. TEK MATE GZ	Nerea Esti Piru Koldo	308 ARTE 2 307 305	MATE Z 2-1 MARRAZ ART MARRAZ. TEK MATE GZ	Nerea Esti Piru Koldo	305	FILOSOFIA	Ana	307 308 305 ARTE 2	BIOLOGIA MATE Z 2-2 ENPRESA ART HIS	Amaia I Nerea Itziar Piru
12:40 13:10															
13:10 14:05	305	FILOSOFIA	Ana	305	HISTORIA	Aitzol	307 308 305	INGELES 2-1 INGELES 2-2 INGELES ELE	Villar Lierni Jon	308 ARTE 2 307 305	MATE Z 2-1 MARRAZ ART MARRAZ. TEK MATE GZ	Nerea Esti Piru Koldo	305	HISTORIA	Aitzol
14:05 15:00	308 ARTE 2 307 305	MATE Z 2-1 MARRAZ ART MARRAZ. TEK MATE GZ	Nerea Esti Piru Koldo	307 308 305	INGELES 2-1 INGELES 2-2 INGELES ELE	Villar Lierni Jon	307 305 ARTE 2	KIMIKA GEOGRAFIA DISEINUA	Amaia I Joxan Mariana	307 308 305	INGELES 2-1 INGELES 2-2 INGELES ELE	Villar Lierni Jon			

BATX 2B (307) 2025-2026

	Astelehena			Asteartea			Asteazkena			Osteguna			Ostirala		
8:00 8:55	308 307 ARTE 2 305	AISIA PSIKOLOGIA AD.GRAF FISIKA	Itsaso Amets Mariana Koldo	307 308 305 ARTE 2	BIOLOGIA MATE Z 2-2 ENPRESA ART HIS	Amaia I Nerea Itziar Piru	307	FILOSOFIA	Ana	308 307 ARTE 2 305	AISIA PSIKOLOGIA AD.GRAF FISIKA	Itsaso Amets Mariana Koldo	305	GAZTELANIA	Amaia D
8:55 9:50	307 308 305 ARTE 2	BIOLOGIA MATE Z 2-2 ENPRESA ART HIS	Amaia I Nerea Itziar Piru	307 305 ARTE 2	KIMIKA GEOGRAFIA DISEINUA	Amaia I Jaxan Mariana	307	HISTORIA	Aitzol	307	HISTORIA	Aitzol	307	HISTORIA	Aitzol
9:50 10:10															
10:10 11:00	307 305 ARTE 2	KIMIKA GEOGRAFIA DISEINUA	Amaia I Jaxan Mariana	308 307 ARTE 2 305	AISIA PSIKOLOGIA AD.GRAF FISIKA	Itsaso Amets Mariana Koldo	307	GAZTELANIA	Amaia D	307	FILOSOFIA	Ana	307 305 ARTE 2	KIMIKA GEOGRAFIA DISEINUA	Amaia I Jaxan Mariana
11:00 11:50	307	HISTORIA	Aitzol	307	GAZTELANIA	Amaia D	307 308 305 ARTE 2	BIOLOGIA MATE Z 2-2 ENPRESA ART HIS	Amaia I Nerea Itziar Piru	307	TUTORETZA	Ana	308 307 ARTE 2 305	AISIA PSIKOLOGIA AD.GRAF FISIKA	Itsaso Amets Mariana Koldo
11:50 12:40	307	FILOSOFIA	Ana	308 ARTE 2 307 305	MATE Z 2-1 MARRAZ ART MARRAZ. TEK MATE GZ	Nerea Esti Piru Koldo	308 ARTE 2 307 305	MATE Z 2-1 MARRAZ ART MARRAZ. TEK MATE GZ	Nerea Esti Piru Koldo	307	EUSKARA	Aitor	307 308 305 ARTE 2	BIOLOGIA MATE Z 2-2 ENPRESA ART HIS	Amaia I Nerea Itziar Piru
12:40 13:10															
13:10 14:05	307	EUSKARA	Aitor	307	FILOSOFIA	Ana	307 308 305	INGELES 2-1 INGELES 2-2 INGELES ELE	Villar Lierni Jon	308 ARTE 2 307 305	MATE Z 2-1 MARRAZ ART MARRAZ. TEK MATE GZ	Nerea Esti Piru Koldo	307	EUSKARA	Aitor
14:05 15:00	308 ARTE 2 307 305	MATE Z 2-1 MARRAZ ART MARRAZ. TEK MATE GZ	Nerea Esti Piru Koldo	307 308 305	INGELES 2-1 INGELES 2-2 INGELES ELE	Villar Lierni Jon	307 305 ARTE 2	KIMIKA GEOGRAFIA DISEINUA	Amaia I Jaxan Mariana	307 308 305	INGELES 2-1 INGELES 2-2 INGELES ELE	Villar Lierni Jon			

BATX 2C (308) 2025-2026

	Astelehena			Asteartea			Asteazkena			Osteguna			Ostirala		
8:00 8:55	308 307 ARTE 2 305	AISIA PSIKOLOGIA AD.GRAF FISIKA	Itsaso Amets Mariana Koldo	307 308 305 ARTE 2	BIOLOGIA MATE Z 2-2 ENPRESA ART HIS	Amaia I Nerea Itziar Piru	308	GAZTELANIA	Amaia D	308 307 ARTE 2 305	AISIA PSIKOLOGIA AD.GRAF FISIKA	Itsaso Amets Mariana Koldo	308	HISTORIA	Aitzol
8:55 9:50	307 308 305 ARTE 2	BIOLOGIA MATE Z 2-2 ENPRESA ART HIS	Amaia I Nerea Itziar Piru	307 305 ARTE 2	KIMIKA GEOGRAFIA DISEINUA	Amaia I Jaxan Mariana	308	FILOSOFIA	Ana	308	FILOSOFIA	Ana	308	GAZTELANIA	Amaia D
9:50 10:10															
10:10 11:00	307 305 ARTE 2	KIMIKA GEOGRAFIA DISEINUA	Amaia I Jaxan Mariana	308 307 ARTE 2 305	AISIA PSIKOLOGIA AD.GRAF FISIKA	Itsaso Amets Mariana Koldo	308	EUSKARA	Aitor	308	GAZTELANIA	Amaia D	307 305 ARTE 2	KIMIKA GEOGRAFIA DISEINUA	Amaia I Jaxan Mariana
11:00 11:50	308	FILOSOFIA	Ana	308	HISTORIA	Aitzol	307 308 305 ARTE 2	BIOLOGIA MATE Z 2-2 ENPRESA ART HIS	Amaia I Nerea Itziar Piru	308	TUTORETZA	Jon	308 ARTE 2 305	AISIA PSIKOLOGIA AD.GRAF FISIKA	Itsaso Amets Mariana Koldo
11:50 12:40	308	EUSKARA	Aitor	308 ARTE 2 307 305	MATE Z 2-1 MARRAZ ART MARRAZ. TEK MATE GZ	Nerea Esti Piru Koldo	308 ARTE 2 307 305	MATE Z 2-1 MARRAZ ART MARRAZ. TEK MATE GZ	Nerea Esti Piru Koldo	308	HISTORIA	Aitzol	307 308 305 ARTE 2	BIOLOGIA MATE Z 2-2 ENPRESA ART HIS	Amaia I Nerea Itziar Piru
12:40 13:10															
13:10 14:05	308	HISTORIA	Aitzol	308	EUSKARA	Aitor	307 308 305	INGELES 2-1 INGELES 2-2 INGELES ELE	Villar Lierni Jon	308 ARTE 2 307 305	MATE Z 2-1 MARRAZ ART MARRAZ. TEK MATE GZ	Nerea Esti Piru Koldo	308	FILOSOFIA	Ana
14:05 15:00	308 ARTE 2 307 305	MATE Z 2-1 MARRAZ ART MARRAZ. TEK MATE GZ	Nerea Esti Piru Koldo	307 308 305	INGELES 2-1 INGELES 2-2 INGELES ELE	Villar Lierni Jon	307 305 ARTE 2	KIMIKA GEOGRAFIA DISEINUA	Amaia I Jaxan Mariana	307 308 305	INGELES 2-1 INGELES 2-2 INGELES ELE	Villar Lierni Jon			

4. EGUTEGIA

2025/2026KO EGUTEGIA BATXILERGOA 2

IRAILA						
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

URRIA						
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

AZAROA						
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

ABENDUA						
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

URTARRILA						
		1	2	3	4	
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

OTSAILA						
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	

MARTXOA						
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

APIRILA						
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

MAIATZA						
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

EKAINA						
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

	Ikasturte hasiera/bukaera
	Asteburu, jai egun eta oporaldiak
	BATX1 pendienteak
	Ebaluazio azterketak
	Buletinak Alexian
	Errekuperazioak
	Ohiko deialdiko azterketak
	Aparteko deialdiko azterketak
	Irteerak
	USAP eta ezohiko saiok
	Ezohiko saiok

5. EBALUAZIOA

Batxilergoko maila guztietan hiru ebaluazio egingo dira ikasturtean zehar. Bestalde, lehen ebaluazioaren erdialdera, ikasle bakoitzari buruzko informazio-bilketa ere egiten du tutoreak.

Ebaluazioaren notifikaziorako tresna Alexia programa izango da. Ebaluazioko **azterketak** data hauetan izango dira:

1. Ebaluazioa	Azaroaren 6tik 12ra.
2. Ebaluazioa	Otsailaren 5etik 11ra.
3. Ebaluazioa	Apirilaren 27tik maiatzaren 4ra
OHIKO DEIALDIA	Maiatzaren 11tik 15era
APARTEKO DEIALDIA	Ekainaren 2tik 9ra

Buletina honako data hauetan argitaratuko da:

1. Ebaluazioa	Azaroaren 21ean (Alexian).
2. Ebaluazioa	Otsailaren 20ean (Alexian).
3. Ebaluazioa	Notak ikasgai bakoitzaren Classroomean jarriko dira.
OHIKO DEIALDIA	Maiatzaren 19an (Alexian)
APARTEKO DEIALDIA	Ekainaren 11n (Alexian)

ERREKUPERAZIOAK

Ebaluazioetan gainditu gabeko arloen errekurazio probak ondorengo datetan egingo dira:

1. Ebaluazioa	Azaroaren 26tik abenduaren 5era.
Buletina	Abenduaren 11an.
2. Ebaluazioa	Otsailaren 25etik martxoaren 6ra.
Buletina	Martxoaren 9an.
1., 2. eta 3. Ebaluazioak	Ohiko deialdian (maiatzaren 11tik 15era)
Buletina	Maiatzaren 19an (Alexian)

* 1. eta 2. ebaluazioko errekurazioak arratsaldean egingo ditugu.

JARDUERA EBALUAGARRIEN BERRIKUSKETA EGITEKO PROZEDURA

Ikasleek edo beraien guraso edo ordezkari legalek eskubidea dute euren kalifikazioan eragina izango duen edozein azterketa edo proba idatzia zuzenduta eta kalifikatuta ikusteko.

Ikasleen gurasoek edo ordezkari legalek gainera, idatzizko proben kopiak etxera eramateko eskaera egin dezakete, behean zehaztutako prozedurari jarraituz.

- Eskaera idatziz egingo dute lan edo proba zuzenduta jaso eta aste bete pasa baino lehen, [inprimaki hau](#) bete eta tutoreari edo arloko irakasleari e-mailez helaraziz.
- Ez da eskaera orokorrik onartuko eta ariketa edo proba bakoitzarentzat eskaera bat aurkeztu beharko da.
- Kopiatuaren erabilera pribatua izango da eta eskatzaileak azterketa ez zabaltzeko

konpromisoa hartuko du.

Irakasleak, egoki baderitzo, lan edo probaren kopia eman aurretik bilera bat egingo du ikasle edo/eta guraso edo ordezkari legalarekin azterketa elkarrekin ikusi eta aztertzeko.

EBALUAZIOAREN INGURUKO DESADOSTASUNA AGERTZEKO PROZEDURA

1. Kalifikazioak (partzialak edo behin betikoak) jakitera eman ondoren (edota gurasoek horien berrikusketa egin edota kopia jaso ondoren), 2 laneguneko epea egongo da kalifikazio horien aurkako desadostasuna adierazteko inplikaturako irakasleari, eta honek 2 laneguneko epean erantzungo dio desadostasunari.
2. Ikaslea ados ez badago, honela jokatu beharko du: desadostasuna tutorearen aurrean agertuko da, eta tutoreak ikasketa buruari adieraziko dio, berak dagokion irakaslearekin hitz egingo du, dagozkion azalpenak jasotzeko. Ikasketa buruak kontsulta egin diezaioke ikasgaiaren departamendu taldeari, egoki baderitzo.

AZKEN KALIFIKAZIOEN KONTRAKO ERREKLAMAZIOA EGITEKO PROZEDURA

- 1) Ohiko eta aparteko deialdiei dagozkien kalifikazioen aurkako erreklamazioak idatziz aurkeztu beharko zaizkio zuzendariari (zuzendaria@zurriolaikastola.eus), kalifikazioa jaso eta 2 laneguneko epean.
- 2) Zuzendariak dagokion departamenduari aurkeztuko dizkio erreklamazioak eta departamenduak erabakia hartu eta txosten arrazoitua eman beharko du. Aparteko deialdian lortutako kalifikazioaren aurkako erreklamazioen kasuan, txostenak zehaztu beharko du ea proba bat datorren programaturako edukiekin, ikasgaiaren helburuekin eta ezarritako eta jakitera emandako ebaluazio- irizpideekin.
- 3) Erreklamazioari oniritzia emanez gero, ikasketa buruak kalifikazio berria aktetan eta bestelako agirietan idatzi beharko du araudizko prozedurari jarraikiz eta zuzendariaren oniritziarekin.

6. ORIENTAZIO AKADEMIKOA

Batxilergoko ikasleek bere ikasketen jarraipenaren inguruko erabaki garrantzitsua hartu behar dute (goi mailako zikloa egin ala unibertsitatera joan, zein ziklo edo gradu, non ikasi,...). Aukeraketa horretan laguntzeko ikastolatik zenbait informazio saio, bisita, eta bestelako jarduerak bideratuko dira. Azpimarratu beharra dago honek ikaslearen inplikazioa eskatzen duela hasieratik, saio gehienak 15:00etatik aurrera izango dira eta.

Ondoren, aurreikusita dauden ekintzak:

AZAROA	- Ikasleei zuzendutako informazio bilera gelan. - Ikasle bakoitzari lehenengo asmoen inguruko galdeketa pasako zaio. - Hainbat Unibertsitatek informazio-saioak Ikastolan eskainiko dituzte.
ABENDUA	- Gurasoei zuzendutako informazio-bilera. - Abenduan unibertsitate pribatuak izen emate epeekin hasten dira (Ikus informazio zehatza unibertsitate horien webetan).
URTARRILA	Unibertsitate nahiz goi mailako zikloko zentroetako ate irekien datak pasilloko panelean eta Classroomean jarriko dira (urtarrila-maiatza)
OTSAILA MARTXOA	- Ikasle bakoitzak EHU-ko campus bakoitzean azokak eta ate irekien bidez graduei buruzko informazioa jaso eta fakultate bisitak egiteko aukera izango du. - EHU: ikasleak USaPerako izena emateko epea.
MAIATZA	- EHU: sarrera proba eskatzen duten titulazioetako frogak (IVEF..) - Ikasleei zuzendutako informazio bilerak gelan (datak, prozedurak, azken oharrak ...) - Tramiteen jarraipena (informazioa zabalduko da abenduko bileran).

EKAINA	USaP: Ohiko deialdia.
UZTAILA	USaP: Ezohiko deialdia.

- Gogoratu batez ere fakultate pribatuek (Deusto, MU,...) eta Lanbide Heziketako zentroek ate ireki saio ugari eskaintzen dituztela. Ikasleek pasilloko paneletan eta Classroomean ikus ditzakete, bestela webguneetan begiratuta.
- Classroom aplikazioko ikasgela birtualean informazioa izango dute eskuragarri.

Orientatzaile akademikoa: orientazioakademikoa@zurriolaikastola.eus

(Itziar Leon)

7. EGUNEROKO ARAUAK

Ikasleen arautegia Zurriolako web-orrian duzue eskura. Hala ere, egunerokoan duten intzidentziagatik, hemenxe aipatzen dizkizuegu zenbait:

- Puntualitatea:** Ikaslea berandu heltzen denean, atea jo eta irakasleak ez badio sartzeko baimenik ematen, zaintza-gelara joan beharko du. Joan ezean, justifikatu gabeko hutsegitezat hartuko da. Klase tarteetan edo jolas garaiaren ondoren gertatzen bada eskola orduz kanpo errekuperatu beharko du galdutako denbora, lehenengo kaleratzetik.
- Ikastolara ekartzen den **materiala** ikaslearen ardurapean dago, hala ere, komenigarria litzateke balio handiko materiala ikastolara ez ekartzea.
- Sakelekoa (mugikorra), erloju adimentsu eta bestelako gailu elektronikoak** ezin dira Ikastolako eremu osoan erabili, ezta eskola-orduetatik kanpo ere. Azterketetan (edo antzekoetan), ezingo da mugikorra soinean edo mahai inguruan izan, gordeta egon beharko du.

Ikastolako eremuan mugikor batek erabiltzen ari ez dela hots egiten badu edota ikalea mugikorra erabiltzen ari bada, irakasleak mugikorra kenduko dio eta idazkaritzan gordeko da. Familiei mezu baten bidez emango zaizue honen berri eta guraso edo tutore legalak etorri beharko du jaotzera.

Ezin dira besteen irudiak (ezta audio grabaketak ere) baimenik gabe hartu, partekatu edota erabili.

- **Ordenagailuak** ikastolarenak dira, baina ikasleek ordenagailu bana esleituta izango dute, eta berena balitz bezala zaindu eta erabiliko dute. Gailu hauek ezingo dira etxeetara eraman, eta egunero kargatzen utzi beharko dituzte ikasleek. Dispositibo hauen intzidentziak Ikastolan bertan kudeatuko dira. Gailuarekin arazoren bat izanez gero, Ikastolako IKT Taldeak kudeatuko du arazoa eta konponketa. Konponketek sor litzaketen gastuak gurasoek beren gain hartu beharko dituzte. Ordenagailua lanerako materiala da. Irakasleak esaten duenean irekiko dute ikasleek, eta irakasleak esaten duenean itxi egingo dute. Klase tarteetan ez dute erabiliko. Ordenagailua ez dute lanerako ez den ezertarako erabiliko.
- **Asistentzia-hutsegiteak.** Asistentzia-hutsegitearen justifikazioa mezu elektroniko bidez helaraziko zaio arloko irakasle eta tutoreari. **Ahal den guztietan aurrez egitea eskatzen dizuegu.**
 - * Ikasgai batean justifikatu gabeko asistentzia-hutsegiteak %15 baino gehiago badira, ikasgai horretako azterketa egiteko eskubidea galduko du ikasleak.
- Eskola orduetan **ikastolatik ateratzeko** gurasoen baimen idatzia beharko da **aldez aurretik**.

- **Aste egitaraua.** Ikasleak bere lanak antolatzeko tresna da. Txukun erabiliz gero oso tresna egokia da eta ikasketetan laguntzen du.
- Proba egunetan aurreko saiora/saioetara justifikaziorik gabe huts egiten duenak, ezingo du proba egin.
- Berreskuraketa egunetan probak arratsalde izango dira. Goizeko saioen batera justifikaziorik gabe huts egiten duenak, ezingo du probarik egin.

Aipatutako arauak ikastolaren eguneroko funtzionamendurako ipinitakoak dira. Arau horiek elkarbizitza eta ikastolako helburuen lorpenera bideratuta daude. Ondorioz, guztiok errespetatu eta errespetarazi behar ditugu.

JANGELA ZERBITZUA ERABILTZEN DUTEN IKASLEEK BETE BEHARREKO ARAUAK

- Ikasleek jangelan bazkaldu behar ez duten egunetan, gurasoek aurrez adierazi beharko dute Hurrako jangelara deituta edo jangelahurra@zurriolaikastola.eus helbidera idatzita.
- Jangelako erabiltzaileek ikastolako araudia errespetatu beharko dute.
- Batxilergoko ikasleek 12:40ak aldera bazkalduko dute.
- Ikasleak elikagaiekin loturiko arazorik duen kasuetan (alergia, intolerantziak...), eta Hurrako jangelan lehen aldiz gelditzen bada edo arazoa berria bada, osasun fitxa betetzeaz gain, jangelako arduradunekin harremanetan jartzea eskatzen dizuegu.
- Maiatza eta ekainean ez da bajarik onartuko.
- Behin jangelan baja emanda, txartelen bitarteko zerbitzua ez da astean bitan baino gehiagotan erabili ahal izango, eta astebeteko aurreikuspenarekin bertaratzea baieztatu beharko da Hurrako idazkaritzan jangelan.

8. BIGARREN HEZKUNTZAKO BATZORDEA

BIGARREN HEZKUNTZAKO BATZORDEA: IKASLE ETA IRAKASLEAK ELKARTZEN DITUEN BATZORDEA

Ikasleek Ikastolaren jardunean eta kudeaketan parte hartzea da batzorde honen helburua. Horren bidez, ikasleak Ikastolako partaide arduradun izan daitezten bultzatu nahi da, Ikastolaren helburu nagusiak hedatu eta garatzeko ekimenak proposatuz, bultzatuz eta antolatuz.

Batzorde honetan BHko araudia, eskola-antolakuntzako gaiak, irteerak, hutsegiteak eta, oro har, etapa honetako ikasleei dagozkien gaiak aztertu, erabaki edota dagokionari aurkeztu eta proposatzen dira.

Batzorde honen **partaideak** honela banatzen dira:

- Ikasleen ordezkariak 18 (gela bakoitzetik ordezkari bana).
- Gurasoen ordezkariak 6 (maila bakoitzetik guraso ordezkari bana).
- Irakasleen 3 ordezkari: Beñat Salaberria, Aitor Artola eta Amaia Elorza.

Ikasleen ordezkari aukeraketa

Batxilergoko ikasle talde bakoitzak bere ordezkariak aukeratzen ditu, bata izenduna eta bestea ordezkoa.

Bigarren Hezkuntzako Batzordean parte hartuko duten gurasoak

Gurasoen ordezkariak ikasturte hasierako guraso bileran aukeratuko dira mailako hiru geletako gurasoen artean. Hautagaiek bi baldintza hauek bete behar dituzte:

- Euskarazko komunikazioan moldatzea
- Bileretara joan ahal izatea

Batzordeko bilerak hiruhilekoan behin izan ohi dira.

9. IRTEERAK, JARDUERA OSAGARRIAK ETA OSPAKIZUNAK

IRTEERAK:

Ikasturtean zehar hainbat irteera egin ohi dira urtero, goiz-pasa, egun-pasa edo egun batzuetakoak. Horietako batzuk helburu akademikoekin lotura zuzena dute, beste batzuek, ordea, elkarbizitzarekin edo bestelako zehar konpetentziekin.

Irteerak eskola-jarduerak dira, eta, horregatik, ikasle guztiak behartuta daude horietan parte hartzera. Ikasleak joan ezin duenean, beste edozein asistentzia-hutsegite bezala justifikatu beharko dute gurasoek, eta jakin bezain laster adieraztea eskertuko genizueke, irteeraren antolaketa oztopa ez dezan. Autobusaren gastua ikasle guztien artean banatuko da. Gainerako gastuei dagokienean, diru-itzulketa egingo zaie joan ez diren ikasleei, posible den neurrian.

Ikasturtean zehar zenbait irteera egingo ditugu, hainbat helbururekin: kohesioa lantzeko, Donostiako txokoak ezagutzeko, kultur-jarduera desberdinak egiteko, jarduera fisikoaz gozatzeko... Atariaren bidez emango dizuegu irteera horien berri, eta kosturik balute, errezibo bidez kobratuko zaizkizue. Lehena irailaren 23an egingo dugu, eta helburua ikasleen arteko harremanak sendotzea da.

JARDUERA OSAGARRIAK

Ikasturtean zehar, hainbat ekintza gauzatu ohi ditugu ikasgai jakin batzuetako eduki eta konpetentziak lantzeko, bai eta zeharkako konpetentziak lantzeko ere. Ekintza horietako batzuk ikastolan bertan egiten dira, eta beste batzuk, aldiz, ikastolatik kanpo. Aurten burutuko ditugun ekintzen berri ematen joango gara.

OSPAKIZUNAK

Ikasturtean zehar, Euskal Herriko eta Donostiako kultura ondarearen ezaugarri diren hainbat ospakizun burutzen ditugu. Gure ikasleek gizartearen kultur-adierazpen hauek ezagutzea eta horiekiko jakin-min eta begirunea izatea ikastolaren xedeetako bat da. Hortaz gain, momentu aproposak izaten dira Ikastolako ikasle, irakasle eta familiak elkartzeko eta gure kultura eta izaera auzora zabaltzeko. Horien berri data gerturatu ahala emango dizuegu.

Ospakizun hauek hurrengo datetan egitea aurreikusten dugu:

- Euskararen eguna: abenduaren 3an
- San Tomas: abenduaren 19an
- Gabon eguna: abenduren 24an
- Danborrada: urtarrilaren 19an
- Kaldereroak: otsailaren 6an
- Korrika: udaberrian
- Ikastolaren Eguna: maiatzaren 16an

Ikasleak danborrada, kaldereroak eta inauteriak ospatzen ditugun egunetan, arratsaldeko ospakizunetara boluntario etorriko dira. Gure aldetik ekintza hauetan parte hartzeri animatu nahi ditugu, euskal nortasuna bultzatuko duen beste ekintzetan parte hartzeri bultzatuko ditugun bezalaxe.

IKASKETA AMAIERAKO BIDAIA

Batxilergoko 2. mailako bidaia ez da ikasturteko ikastolaren jarduera bat. Beraz, eskola egutegitik eta ordutegitik kanpo egin beharko da beti ere.

Haren antolaketarako gure laguntza izango dute, eskatuz gero (bilerak egin, laguntza ekonomikoa lortzeko jardueretarako kudeaketan lagundu...). Baina **ikastolak ez du bidaiaren gainean inolako ardura eta erantzukizunik hartuko.**

10. OSASUN ARRETA

OSASUN OROKORRA

MEDIKAZIOA EMATEKO BAIMENA

Aurretik osasun-fitxaren bitartez adierazi zenigutena aplikatuko dugu aurten ere ikasleei botika ematerako orduan. Orduz geroztik **aldaketaren bat eman bada** (ikaslearen osasun egoera, har ditzakeen botikak...) lehenbailehen idatziz adieraziezaguzue gure datuak eguneratu ditzagun eta ikasleari behar bezalako arreta eskain diezaiogun. Osasun-fitxarik bete ez baduzue, Osakidetzaiko medikuek eta Hezkuntza Saileko ordezkariak prestatutako fitxa helaraziko dizuegu. Bertan bi atal nagusi dituzue:

- Lehenengo atala krisi egoera bat sorraraz dezaketen gaixotasunen bat dutenek bete behar dute. Hala denean, ekar ezazue arren medikuaren txostena. Bertan, ikasleak krisiren bat izanez gero Ikastolako kideok nola jokatu behar dugun adierazi behar da.
- Bigarrena orokorra da, denek betetzea eskatzen dizueguna. Bertan, gurasoek adierazi behar duzue Ikastolari baimena ematen diozuen ala ez ikasleari botika emateko:
 - Analgesiko edota antiinflamatorio orokorrak seme-alabari emateko baimena ematen ote duzuen adierazi. **Bai** ala **ez** adieraz ezazue, arren.

- Gaixotasun kronikoa duelako beste sendagairik ematea eskatzen duzuenean (bronkodilatadoreak...) botikarekin batera medikuaren txostena ere ekar ezazue, arren, botika emateko jarraibideekin.

Fitxa beteta eta sinatuta helaraz iezaiozue tutoreari, arren. ATARIAn duzue argitaratuta eta berau deskargatu eta eskuz bete behar duzue.

ISTRIPUEN KUDEAKETA (BETI POLIKLINIKAN)

Ikastolak ikasleentzat kontratatutako aseguruia Mapfreren bitartez bideratzen da. Aseguruetxe honek hitzarmena du Donostiako POLIKLINIKA eta QUIRON osasun-zentroekin. Istripu bat Ikastolako eremuan gertatzen denean, bai eskola-orduetan, baita eskolaz kanpoko jardueretan ere, ikasleak bi zentro hauetako batetara (larrialdietara) eramango dituzue. Bertan, Ikastolatik prestatu zaien "istripu parte" erakutsi beharko dute. Istripu parterik ez balego (idazkaritza itxita dagoelako edo istripuaren ondorioak ikastola orduetatik kanpo sumatu direlako), Zurriola Ikastolako ikaslea dela adierazi eta parte hurrengo egunean jasoko dutela esanda, artatuak izango zarete. Hurrengo egunean abisua eman idazkaritzan gertatutakoarekin, parte bidali dezagun.

Norbaitek hitzartutako zentru hauen ordezkariak zerbitzuak erabiltzea erabakiko balu, jakin, behin prozesua bertan abiatuz gero, ondorengo pausoak ere Osakidetzan eman beharko direla, beraien prozedurak eta tempusak jarraituz. Kasu honetan, Ikastolako asistentzia-partearekin prozedura berdina jarraitu beharko da, hau da, alde aurretik prestatutakoa eraman edo hurrengo egunean ikastolan abisua eman, parte bidali dezagun.

Ohar honen gaztelerazko bertsioa [bertan](#) duzue irakurgai.
La versión de castellano de este documento está disponible [aquí](#).